



## ADMINISTRAZIO PUBLIKOENTZAKO KONTSUMO KRITIKO, ARDURATSU ETA ERALDATZAILE FEMINISTAKO NEURRI PROPOSAMENAK ENERGIAREN ESPARRUAN

### ARRAZOIBIDEA ETA HELBURUA

Gaur egungo klimaren larrialdiari eta krisi ekosozialari aurre egiteko, eredu sozioekonomikoa aldatu eta eraldaketa bat abian jarri behar da, bidezko eredu jasangarria lortzeko. Aldaketa horretarako bidean, kontsumoa murriztu behar dugu lehenbizi –energetikoa ere bai–, desazkundek nabarmentzen duenez; proposamen hori energia eta material gutxiago gastatzen dituen ekonomiaranzko trantsizioaren bila ari da. Energia-kontsumoa txikitzeaz gain, trantsizio energetiko bidezkoa eta demokratikoa egitea funtsezkoa da, berotegi-efektuko gas-isuriak murrizteko eta klima-aldaketa arintzeko aukera dakar eta.

Dimentsio anitzeko krisi honek zuzeneko lotura du sistema ekonomiko nagusiarekin, pertsonen artean alde handia eragiten duena eta gure planeta suntsitzen ari dena. Egoera honetan, gizakiak zein planeta arriskuan daude, beraz, premiazkoa da eredu sozioekonomikoa erabat eraldatzea.

Aurre egin beharreko erronkarik handienetakoen artean dago klima-larrialdia, eta datuek islatzen dutenez, egoera kezagarria da. Urtero tenperatura-markak erregistratzen ari dira, eta 2020. urtea erregistratutako 3 urterik beroenen artean dago<sup>1</sup>. Tenperaturek gora egin ahala, sute latzen maiztasuna eta bortiztasuna gora egiten ari dira, eta, beste faktore batzuekin batera, esaterako, nekazaritzaren gehiegizko ustiapenarekin batera, desertifikazioa azkartzen dute, Espainiako Estatuko ingurumen-arazo handienetakoa. Izotz-geruzek gero eta lodiera txikiagoa dute eta itsasoaren mailak bi metro edo gehiago egin lezake<sup>2</sup> gora XXI. mendea amaitu baino lehen. Ozeanoak gero eta azidotuagoak daude<sup>3</sup>, eta horrek arriskuan jartzen ditu planetako ekosistema guztiak. IPCCk (Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeak) azken txostenean xedatu duenez, gizakien jardunak klima-aldaketari eragin dio zalantzarik gabe, eta berehala heldu behar zaio. Klima-aldaketaren ondorioz larrienak arintzeko eta planeta ez suntsitzeko, IPCCk xedatu du tenperatura globala 1,5 °C igo behar dela gehienez, industria aurreko mailekin alderatuta<sup>4</sup>, eta, azken txostenean ohartzera eman duenez, mende honetan 2 edo 1,5 °C-eko beroketa gertatuko da, «datozen hamarkadetan CO2 eta berotegi-efektuko beste gas batzuen isuriak asko murrizten ez badira»<sup>5</sup>; hortaz, berotze globala murriztea bizirauteko ezinbesteko gaia da. Kalkulatu denez,

- 1 Munduko Meteorologia Erakundea. (2021eko urtarrilaren 15a). *El 2020 es uno de los tres años más cálidos registrados*. [Prensa-oharra]. <https://public.wmo.int/es/media/comunicados-de-prensa/el-2020-es-uno-de-los-tres-a%C3%B1os-m%C3%A1s-c%C3%A1lidos-registrados>
- 2 Bamber, J. L., Oppenheimer, M., Kopp, R. E., Aspinall, W. P., & Cooke, R. M. (2019). Ice sheet contributions to future sea-level rise from structured expert judgment. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 116(23), 11195-11200. <https://www.pnas.org/content/pnas/116/23/11195.full.pdf>
- 3 Gregor, L., & Gruber, N. (2020). OceanSODA-ETHZ: A global gridded data set of the surface ocean carbonate system for seasonal to decadal studies of ocean acidification. *Earth System Science Data Discussions*, 2020, 1-42. [https://web.archive.org/web/20201025202310id\\_/https://essd.copernicus.org/preprints/essd-2020-300/essd-2020-300.pdf](https://web.archive.org/web/20201025202310id_/https://essd.copernicus.org/preprints/essd-2020-300/essd-2020-300.pdf)
- 4 IPCC (Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea). (2019). *Informe especial del IPCC sobre los impactos del calentamiento global de 1,5 °C con respecto a los niveles preindustriales y las trayectorias correspondientes que deberían seguir las emisiones mundiales de gases de efecto invernadero, en el contexto del reforzamiento de la respuesta mundial a la amenaza del cambio climático, el desarrollo sostenible y los esfuerzos por erradicar la pobreza*. [https://www.ipcc.ch/site/assets/uploads/sites/2/2019/09/IPCC-Special-Report-1.5-SPM\\_es.pdf](https://www.ipcc.ch/site/assets/uploads/sites/2/2019/09/IPCC-Special-Report-1.5-SPM_es.pdf)



itsasoaren mailaren igoerak 300 milioi pertsona mehatxatuko ditu 2050ean<sup>6</sup>, eta, 2020an, 30,7 milioi barne joan-etorri egin ziren 149 herrialdeetan eta lurraldeetan, hondamen naturalen ondorioz<sup>7</sup>. Klima-aldaketak modu ezberdinean eragiten du, eta haren ondorioek modu latzagoan kaltetzen dituzte emakumeen eta beste biztanle kalteberen osasuna eta bizitzako baldintzak, adibidez, pobreziako egoeran dauden pertsonenak, komunitate indigenenak, landa-eremu ahuletan bizi diren pertsonenak eta abarrenak.

Gipuzkoan, batez besteko tenperatura 1,2 °C igo da azken 50 urteetan, eta mende amaieran 3 eta 4 °C artean igoko da agian. Gainera, iragarpenen arabera, prezipitazioak % 5 eta 11 artean jaitsiko dira. Aurreikusi denez, itsasoaren mailak mende amaierarako behera egingo du 50 eta 70 zentimetro bitartean, eta fenomeno horiek eragingo dituzten lehorteeak eta uholdeek Gipuzkoako biztanleen % 40ri eragingo diete zuzenean<sup>8</sup>.

Ondorio horiek arintzeko faktore nagusi bat da trantsizio energetikoa. Gaur egungo eredu energetikoa kontsumo energetikoa etengabe haztean oinarritzen da. Kontsumo horretarako baliabide amaikorrek daude, nagusiki, erregai fosilak, Iparralde Globalak (bereziki, Europak eta Amerikako Estatu Batuek) hegoaldeko herrialdeetan eskuratzen dituenak. Eredu jasanekin horren ondorioz, berotegi-efektuko gas-isuri handiak daude, klima-aldaketaren eragina handitu eta herrialde txiroetako edo meategi zein zabortege handi gisa erabili ohi diren Hegoalde Globaleko lurraldeak suntsitzen dituztenak. Lurralde horietan, Iparralde Globalak materialen gehiegizko ustiapena egiten duenez, ingurumena suntsitzeaz gain, gatazkak eta lekualdaketak sortzen dira. Erauzketa-mugaren ondorioz, herrialde horiek ezin dute aurrera egin, eta nazionalitateak, herriak eta komunitate indigenak desagertzearen arriskua handitzen da. Gainera, komunitate horiek zaintzen dituzte ekosistemak, mundu osoa dago horien mende, eta erauzketa-industria ekosistema horiek suntsitzen ari da. Hori gutxi balitz, baliabideak asegaitz eskatzen direnez, muga hori Iparralde Globalerantz hedatzen ari da.

Egoera horren aurrean, bidezko trantsizio energetiko demokratikoa, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren nahiz kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaile feministaren ikuspegia txertatzen dituen, funtsezkoa da ingurumenaren eta pertsonen ongizatea muinean jartzeko. Petrolioaren, ikatzaren eta gas naturalaren erauzketa maldan behera dago, beraz, jatorri berriztagarriko energietara jo eta ekonomia birkokatu behar dugu.

Oraingo ereduarekin, beste herrialde batzuetatik inportatutako energiaren zein jatorri fosileko energiaren mende dago EAE. Alde batetik, EAEn kanpo-energiaren mendekotasuna handienetakoa da Europan, ehuneko 90etik gora baitago<sup>9</sup>, eta, bestetik, gaur egun, erregai fosilek Euskadiko energia-eskakizunaren ehuneko 79 osatzen dute<sup>10</sup>. Egund, autonomia-erkidegoko

5 IPCC (Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea). (2021eko abuztuaren 9a). *El cambio climático es generalizado, rápido y se está intensificando*. [Prensa-oharra]. [https://www.ipcc.ch/site/assets/uploads/2021/08/IPCC\\_WGI-AR6-Press-Release-Final\\_es.pdf](https://www.ipcc.ch/site/assets/uploads/2021/08/IPCC_WGI-AR6-Press-Release-Final_es.pdf)

6 UNHCR (Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataritza). (2021eko apirilaren 19a). *Mapa mundial del desplazamiento climático*. <https://eacnur.org/es/actualidad/noticias/mapa-mundial-desplazamiento-emergencia-climatica>

7 UNHCR (Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataritza). (d.g.). *Desplazados climáticos*. <https://eacnur.org/es/desplazados-climaticos>

8 Naturklima. (2020). *Klima-aldaketaren inpaktua eta harekiko kalteberatasuna Gipuzkoan: txostena*. Egilea. Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://www.naturklima.eus/documentos/documentos/Klima-aldaketaren-inpaktua-eta-Kalteberatasuna-EUS.pdf>

9 Energiaren Euskal Erakundeko Azterlanak eta Planifikazioa Atala. (2020). *Energia datuak*. Energiaren Euskal Erakundea. <https://www.eve.eus/CMSPages/GetFile.aspx?guid=3eca933e-baa4-44ba-b6ab-7a9b8cef49cb>

10 Urruticoechea Uriarte, P. (2016). Diagnóstico de la situación energética de Euskadi y estrategias de futuro. *Cuadernos de energía*, 48, 100-105. or. <http://www.adimenlehiakorra.eus/documents/29934/31632/Diagn%C3%B3stico+de+la+situaci>



elektrizitatearen % 15 baino ez dator energia berriztagarrietatik. Horregatik, jatorri berriztagarriko tokiko eredu energetiko deszentralizatu batera aldatzea funtsezkoa da.

Sistema energetiko horrek, gainera, ondorio kaltegarriak ditu herritarrengan, eta biztanleek ia ez dute kontrolik energiaren kudeaketaren eta banaketaren gain. Sektore energetikoek, elektrikoa barne, oligopolioak dira oro har, eta, ondorioz, ezin zaio kontra egin pobrezia energetikoari. Egoera horrek gizartearen zati handi bati eragiten dio; izan ere, Eurostaten datuen arabera, 2019an, Espainiako lurraldeko % 7,5 etxeetan pobrezia energetikoa pairatu zuten, eta emakumeak ziren kaltetuenak. Ingeniería Sin Fronteras (ISF) erakundeak dioenez, emakumeek ordu-kopuru bikoitza (ia bi egunero, zehazki) eskaintzen diete etxeari eta familiari, hortaz, haiei eragiten diete gehien hornidura-mozketak, oinarritzko zerbitzu nahikoak eskuratu ezin izateak eta ordaindu gabeko eta ordaindu ezin diren fakturek sortutako zorrek, espazio pribatu horrekin (etxearekin) lotura handiagoa dute eta. Horren harira, SETEM HHren *Indarkeria kontsumitzen dugu?*<sup>11</sup> ikerketak oso datu bereizgarriak ematen ditu. Ikerketan antzematen denez, emakumeen % 54,5ek eta gizonen % 42,1ek ezin dute beren etxeetako kontsumo energetikoaren gastua ordaindu, eta emakumeen % 13,8k eta gizonen % 5,6k isolatzeko joera dute, eta beste pertsona batzuk beren etxeetara bisita egitea saihesten dute. Bestalde, arlo horri aplikatutako ikuspegi interseksionalak dioskunez, pobrezia energetikoa gehiago kaltetzen ditu etxe gurasobakar amadunetan bizi diren pertsonak, emakume erretiratuak eta beste jatorri geografikoetakoak, besteak beste<sup>12</sup>.

Bestalde, Pobrezia Energetikoaren Behatokiak<sup>13</sup> adierazi duenez, 2017an 63.566 etxe zeuden pobrezia energetikoko egoeran Gipuzkoan. Gainera, datuak biltzen hasi zenetik (2012) azken erregistrora bitartean (2017), diru-sarrerekin alderatuta gehiegizko energia-gastua zuten etxeen kopuruak gora egin zuen. Gipuzkoan ere nagusiki emakumeek bizi dute egoera hori.

Gainera, COVID-19aren pandemiak egoera larritu du. Alde batetik, osasun-egoerak eragin duen krisi ekonomikoak langabezia handitu du, bereziki, emakumeen artean. Bestetik, konfinamenduan zehar, Espainiako etxeetako kontsumo energetikoa % 28 handitu zen<sup>14</sup>. Arrazoi horien ondorioz, diru-sarrera txikiagoko etxeetako etxebizitzaren egoera desagokiarekin batera, pobrezia energetikoa jasateko arriskua duten etxeen kopurua handitu zen, eta emakumeei eragin zien bereziki.

Pobrezia energetikoa jasaten duten pertsonen osasun fisikoak eta mentalak ondorio larriak izan ditzake, hala nola asma, artritis, gaixotasun erreumatikoa, depresioa edo antsietatea. Osasuneritasun horiez gain, pobrezia energetikoa ondorio negatiboak dauzka ongizatean eta hezkuntza-errendimendua murrizten du.

Egoera horren aurrean, Ekonomia Sozial eta Solidarioak proposamen alternatiboak dauzka justizia sozialean, berdintasunean, inklusioan eta parte-hartzean oinarritzen den eredu energetikoa eraikitzeko, eta, bizitza duina izateko erabiltzaileen eskubidea babestu beharrean, bere onura

[/C3%B3n+energ%C3%A9tica+de+Euskadi+y+estrategias+de+futuro/8a1283a3-4e70-426f-a7f2-0b6cb7ebed62](https://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/consumimosviolencia_estudio_eusk.pdf)

11 SETEM Hego Haizea. (2019). *Indarkeria kontsumitzen dugu?*. Egilea.

[http://www.setem.org/setem\\_ftp/euskadi/consumimosviolencia\\_estudio\\_eusk.pdf](http://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/consumimosviolencia_estudio_eusk.pdf)

12 González Pijuan, I. (2016): *Desigualdad de género y pobreza energética. Un factor de riesgo olvidado*. Egilea eta Associació Catalana d'Enginyeria Sense Fronteres. <https://esf-cat.org/wp-content/uploads/2017/09/ESFeres17-PobrezaEnergeticaiDesigualdadGenero.pdf>

13 Gipuzkoako Foru Aldundia. *Pobrezia energetikoa neurtzeko proposamena*. (d.g.).

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/energia/pobrezia-energetiko-behatokia/pobrezia-energetikoaren-adierazleak/pobrezia-energetikoa-neurtzeko-proposamena>

14 OCU (Espainiako kontsumitzaileen elkarte). (2020ko apirilaren 21a). *El consumo eléctrico en los hogares aumenta un 28% por el confinamiento*. <https://www.ocu.org/vivienda-y-energia/gas-luz/noticias/aumento-consumo-electrico-confinamiento>



propioak lehenesten dituen oligopolio-merkatuaren legeetatik urruntzeko. Alternatiba horiek inportazioen eta fosilen mendekotasuna baztertzen dute eta herriaren subiranotasun energetikoaren alde jotzen dute beste kultura energetiko bat bultzatzeko, non pertsonak eta komunitateek erabakiak hartu ahal dituzten energia sortu, banatu eta kudeatzeari buruz, beren beharretara eta egoeretara egokitzeko, eta, hala, demokrazia energetikoa bermatzeko.

Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago Euskadik Estatuko elektrizitatearen % 6 kontsumitzen duen bitartean, horren zati txiki-txiki bat baino ez duela sortzen, eta, gainera, sortzen duenaren % 15 baino ez dela berriztagarria, Estatuan % 44 den bitartean.

Gure proposamenaren bidez, Goiener, Ekologistak Martxan erakundeak Tradener, Acción Ecológica eta SETEM Hego Haizea erakundeak administrazio publikoek neurriak txertatzea nahi dugu, energiaren alorrean kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaile feminista izateko, energia garbi eta berdearen alde jotzen duen eredu jasangarria, bidezkoagoa, berdina eta demokratikoa sustatze aldera. Energia garbi eta berdeaz ari garenean, energia berriztagarria, deszentralizatua eta tokikoa esan nahi dugu, ekoizpen-kantitate handietan oinarritzen den sistematik urruntzen dena eta espazio urbanizatuak eta produkzioarako landu ezin direnak lehenesten dituenak.

## AURREKARIAK

Ikusi dugunez, trantsizio energetikoa egin behar da energia berriztagarrietan oinarritutako eredu batera, saihestezina da. Egoerak behar duen premiarekin ez bada ere, munduko zein tokiko agendak urratsak ematen ari dira horretarako, eta oinarri hartzeko marko bat ematen digute.

Nazio Batuen Agenda 2030en 7. GJHan (Arrazoizko energia eta ez-kutsatzailea) jasotzen denez, 2030erako hauek bermatu behar dira: arrazoizko energia-zerbitzu fidagarriak eta modernoak (7.1. xedea), iturri energetikoen multzoan energia berriztagarrien proportzioa asko handitzea (7.2. xedea) eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko munduko tasa bikoiztea (7.3. xedea).

Europar Batasunak, bestalde, energia ziurraren, bermatuaren, jasangarriaren eta arrazoizkoaren beharra aitortzen du, herritarren ongizaterako. 2050erako energiaren ibilbide-orrian<sup>15</sup>, EBak zenbait lehentasun ezarri ditu, esaterako, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak, deskarbonizazioa lortzeko, eta etorkizuneko sistema energetikoetan tokiko erakundeek eta hiriek funtsezko rola dutela aipatu du.

Estatuko esparruan, 2021eko maiatzean 7/2021 Legea onartu zen, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa<sup>16</sup>, eraginkortasun energetikoa nabarmendu eta eskabidea kudeatzearen, autokontsumoa sustatzearen eta biztanle kalteberentzako neurriak finkatzearen alde jotzen duena. Ikuspegi askotik Legea hobetu badaiteke ere, arauzko markoa ematen digu eredu energetikoa eraldatzeko. Bestalde, Energiaren eta Klimaren 2021-2030 Plan Nazional Integratuak (PNIEC) – Europako Itun Berdearen parte gisa deskarbonizazioarako Espainiako Gobernuak eratu duen ibilbide-orriak– % 23 murriztu nahi ditu berotegi-efektuko gasen isuria, 1990ekin alderatuta.

15 Europako Batzordea. (2011ko abenduaren 15a). 2050erako energiaren ibilbide-orria. [Komunikazioa]. <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52011DC0885&from=es>

16 2021eko Legea, [Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa. 2021eko maiatzaren 21a. BOE 8447.](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2021-8447)



Autonomia-erkidegoaren mailan, Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030ak eredu energetiko jasangarrirako jarraibideak zehaztu ditu, eta eredu horrek hornidura-segurtasunaren, energiaren kostu lehiakorren eta ingurumenari kalterik ez sortzearen arteko harmonia ziurtatu beharko du. Halaber, gobernamendu energetikoa hobetzearen alde jotzen du, eta, horretarako, giza faktorea funtsezkoa da. Bestalde, Ihebek, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoak, baieztatu duenez, ekonomia zirkularreko eredu batek 7. GJHaren xedeak betetzen lagunduko du, erregai fosilak baliabide berriekin eta energia-iturri alternatiboekin ordezkatzeko baitira<sup>17</sup>. Halaber, Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundearen bitartez, energia berriztagarrien autokontsumoa bultzatzeko laguntza-ildo bat abian jarri zuen 2020an.

Bestalde, Donostiako Udalak urratsak eman ditu energiaren eraginkortasunaren arloan konpromisoa hartzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko. Tokiko Agenda 21 bereganatzeko konpromisoaren baitan, Udalak hura ezartzeko ekintza-plan bat onartu zuen 2004an. Plan horren 6. ildo estrategikoak tokiko ekintza sendotzea aipatzen du, energiaren eraginkortasunari dagokionez, eta energia berriztagarriak bultzatzea nahiz klima-aldaketara egokitu beharra ere bai.

Bestalde, 2021eko otsailean, beste udal-ordenantza bat onartu zen eraikuntzen eraginkortasun energetikoari buruz<sup>18</sup>. Haren helburua da aztarna energetikoa eta karbonoaren aztarna murriztea eta, aldi berean, eraikinen barruan klima-erosotasuna handitzea ingurumenarekiko modu jasangarrian. Ordenantzak eraginkortasun energetiko handia bultzatu nahi du eraikin berrietan zein jada eraiki direnetan, eta eraikuntzan energia berriztagarriak ezarri ere bai. Horrela, Udalak urrats bat eman zuen udalbatzak zehaztutako helburuak lortzeko, hauek zehazki: 2030erako ehuneko 40ko murrizpena 2007arekin alderatuta, eta 2050era ehuneko 80ko murrizpena<sup>19</sup>.

Udalak egin dituen aurrerapen horiek garrantzitsuak dira eredu energetikoa aldatzeko. Hala ere, gure ustez, trantsizio energetikoaren aldeko apustua azkartu eta indartu behar da, eredu bidezkoagoa, irisgarriagoa, demokratikoa, sozialagoa eta ingurumenarekiko jasangarria lortzeko. Horretarako, norabidea aldatu behar da Udaleko politiketan eta jardunetan, eta bultzada eman behar zaio politiken koherentziari, ahaleginak batzeko energiaren, ingurumenaren, garraioaren, mugikortasunaren, hirigintzaren, elikaduraren eta abarren alorretan.

Gure lurraldean eredu energetikoa eraldatu nahi duten ekimenak daude, eta, horretarako, herritarrek subiranotasun energetikoa berreskuratu behar dute eta energiaren kontsumo arduratsua eta jasangarria sustatu behar da. Ekimen horiek kontuan hartu beharko lirateke. Hori egiten ari da Goiener kooperatiba, gutxika-gutxika toki bat hartzen ari dena sektore elektrikoaren parte liberalizatuetan, hau da, merkaturatzean eta sorkuntzan. Goienerren proposamenak alternatibak ematen dizkigu Ekonomia Sozial eta Solidario feministatik, bidezko energia-eredua, ingurumena errespetatu eta pertsonak ahalduntzen dituen, lortzeko.

17 Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. (2019). *Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategia 2030*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/economia\\_circular/eu\\_def/adjuntos/EkonomiaZirkularrekoEstrategia2030.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/economia_circular/eu_def/adjuntos/EkonomiaZirkularrekoEstrategia2030.pdf)

18 Donostia. Ayuntamiento. (2021). *Eraginkortasun energetikoaren udal ordenantza*. [https://www.donostia.eus/secretaria/normunicipal.nsf/vListadoId/B1A4808C6171C720C1258685002CAEB7/\\$file/Eraginkortasunaren%20udal%20ordenantza.pdf](https://www.donostia.eus/secretaria/normunicipal.nsf/vListadoId/B1A4808C6171C720C1258685002CAEB7/$file/Eraginkortasunaren%20udal%20ordenantza.pdf)

19 Donostiako Udala. (2018). *Donostiako Klima 2050 Ekintza Plana*. <https://www.donostia.eus/ataria/documents/8023875/8246263/Donostiako+Klima+2050+Ekintza+Plana.pdf/60797305-a681-498e-a262-453820aff487>



Gares Energia ekimena beste adibide bat da. Eredu energetikoa eraldatzen lagundu nahi du autohorniduraren eta udalerriko komunitatea indartzearen bidez<sup>20</sup>. Proiektu horrek energiaren autohornidura lortu nahi du biztanle guztientzat, instalazio publikoetan zein enpresetan, dendetan eta etxeetan, eta, aldi berean, udalerriko turismoa, garapen ekonomikoa, enplegua eta bertan biztanleak errotzea sustatu nahi du, energiaren ziklo integralak eman dezakeenari esker (kontsumoa, kontrola, kudeaketa eta energia jasangarria sortzea). Ekimen berritzaile eta eraldatzaile horrek argi uzten du gauzak beste modu batera egin daitezkeela.

Administrazio publikoek ere ekimenak suspertu dituzte horrekin lotuta, adibidez, Bartzelonako Udalak. 2019an, Barcelona Energia sortu zuen, energia elektrikoaren merkaturatze publikoa, Udalari aukera ematen diona administrazioarekin berarekin duen kontratu elektrikoa zuzenean kudeatzeko. Barcelona Energiak zerbitzua eskaintzen die Udalari, herritarrei eta hiriko enpresei, eta autokontsumoa, energia berriztagarria, gertutasuneko zerbitzua eta horniduraren bermea bultzatu nahi ditu. Gure lurraldean, 2021eko martxoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Energiaren Euskal Erakundeak eta Kreanek proiektu bat abian jarri zuten, energiako herritarren kooperatibak sustatzeko xedez, energia berriztagarriak eta autokontsumoa hautatzen dituzten sistema energetikoak garatzeko aukera ekarriko lukeena.

Gero eta pertsona gehiagok hautatzen dituzte autokontsumoa bezalako alternatibak etxeetan energia sortzeko. Halaber, ikusten ari garenez, herritarrak gero eta gehiago ari dira energia kudeatzeko eta politika energetikoetan eragiteko eskubidea aldarrikatzen. Horretarako, gure ustez, administrazio publikoek herritarren eskakizunak entzun eta eredu energetiko jasangarrirako bideari ekin behar diote.

Proposamen horrekin, administrazio publikoari lagundu nahi diogu, pertsonak eta ingurumena muinean jartzen dituen eredu energetiko horretarako bideari ekin diezaion. Horretarako, neurri multzo bat aurkezten dugu, instituzioek kontsumo kritikorako, arduratsurako, eraldatzaileko eta feministarako irizpideak mailaz maila gehitu ditzaten energiaren esparruan. Donostiaren kasuan, 2050 Klima Ekintza Planak ezarritako helburuak guk proposatutako neurriekin bat egiten dute, adibidez, mugikortasunarekin lotutakoak, deskarbonizazioari buruzko helburua eta kontsumo energetikoaren berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea (E.1), energia berriztagarria sortzea (E. 2), eraginkortasun energetikoa hobetzea (E.3) edo oinarrizko behar energetikoak asetzeko sektore ahulei laguntzea (E.4).

## JARDUKETA-PROPOSAMENAK

1. Kontsumo energetikoa murriztea.
2. Energiako eta klimako auditoriak gehitzea udal-jardunetan, datu-bilketako sistema gardena eta eskuragarria garatuz eta Udalaren kontsumo energetikoa optimizatuz.
3. Jatorri berriztagarriko ziurtagiria duen energia elektrikoa baino ez kontsumitzea.
4. Energiaren arloan herritarrei informazioa eta aholkularitza emateko bulegoak irekitzea.

<sup>20</sup> Hartueman. (d.g.). Gares / Puente La Reina: Energía. [https://www.udalbiltza.eus/eu/hartueman/gares-energia?set\\_language=eu](https://www.udalbiltza.eus/eu/hartueman/gares-energia?set_language=eu)



5. Mugikortasun jasagarria sustatzea oinezkoen mugikortasuna eta bizikletaren erabilera bultzatuz, bai eta garraiobide pribatua ordezkatzeko gai den garraiobide publikoa ere. *Carsharing* eta *carpooling* komunitarioaren ezarpena bultzatzea eta ibilgailu pribatuen sarrera murriztea hiri-erdigunean, periferian aparkalekuak suspertuz. Auto elektrikoetarako erabilitako energia berriztagarria dela bermatzea.
6. Autokontsumoa sustatu eta piztea, bereziki, autokontsumo kolektiboa. Autokontsumoaren energia berriztagarria sortzeko bultzadari laguntzea eraikuntza pribatuan, adibidez, ondasun higiezinen gaineko zerga hainbat urtez arinduz.
7. Giza baliabide eta material gehiago jartzea gero eta pertsona gehiagori –emakumeei bereziki – eragiten dion pobrezia energetikoa identifikatzeko eta hari aurre egiteko. 2030erako pertsona guztiek laguntza motaren bat izateko helburua finkatzea, oinarritzko behar energetikoak ase ezin badute.
8. Tokiko komunitate energetikoak bultzatzea herritarren eta interesa duten erakunde zibilen eta komunitarioen zuzeneko parte-hartze aktiboarekin.
9. Gaur egun etxeetako berogailuetarako eta ur berorako erabiltzen diren energia fosilak jatorri berriztagarrikoekin ordezkatzeko ideia alternatiboen bilaketa eta ikerketa laguntzea, sustatzea eta finantzatzea.
10. Isuri gehien eragiten dituzten sektoreen (garraioa, industria, elikadura, hondakinen tratamendua, etab.) kontsumo energetikoaren murrizketa eta eraldaketa bultzatzea.
11. Energiaren esparru ezberdinetan Udala egiten ari den jardunetatik eratorritako aurrezki ekonomikoa arlo horretako jarduketara berrietan baino ez inbertitzea.